




LH-2. MAILA
4. UNITATE DIDAKTIKOA
“Ikasi. Berdintasunez trabak eta mugak gainditu”



LH2-4UD. IKASI: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Egiaztatzea eta esperimentatzea neska-mutilek zer sentitzen ikasi, hura sentitzen dutela; zer izaten ikasi, halako bihurtzen direla; nola jokatzeko ikasi, hala jokatzeko dutela; halaber, proposatutako eredu tradizionalak mugatu egiten gaituztela, pobretzen eta sailkatzen, eta badela beste alternatiba liberatzaile, aberasgarri eta bidezkoagorik.

| KONTZEPTU NAGUSIAK | BEHAKETA - AZTERKETA | ONDORIOAK - IKASKETAK |
|--|--|--|
| <p>1. Genero estereotipoen traba eta mugarik gabe ikasi. Bizitzaren arlo guztietan eta guztietarako ikasi eta trebatu. Garapen integrala lortzeko ikasi. Norberaren ahalmenak garatzeko, era guztietako ikasketak egin (“femeninoak” nahiz “maskulinoak”). Pertsona bakoitzaren gaitasun eta ezaugarri pertsonalen arabera ikasi.</p> | <p>1. Trebek eta Tximistak ikasi eta egiten dituzten ekintza ez estereotipatuak. Zer ekintza azpimarratu dituzte ikasleek? Pertsonaien sexuaren arabera azpimarratu dituzte? Ekintza berak azpimarratu dituzte neskek zein mutilek? Zeintzuk bai? Zeintzuk ez? Zergatik? Zer ikasi eta egiten dute jadanik gure ikasleek? Berdin neskek zein mutilek? Zergatik?</p> | <p>→ Guztiok ekintza baliotsuak egiten ikasi dugu. Trebek eta Tximistak ekintza baliotsuak egiten ikasi dute. Beste pertsonaiek ere bai. Guk ere egiten ditugu, ikasi dugu egiten. Beraz, gehiago ikas dezakegu.</p> <p>→ Inor ez da ikasia jaio. Edonork ikas eta trebatu daiteke. Edonork ikas dezake, sexuari erreparatu gabe, saiatuz eta ikasiz, ahaleginduz eta hobetuz.</p> |
| <p>2. Gure gizartean, orokorrean, neskek eta mutilek ez dituzte gaitasun berak garatzen ezta ikasketa berdina egiten ere. Oraindik ere, gure gizartean “normalizat” jotzen da “nesken ikasketak” (ia ikasle mutilik gabekoak) eta “mutilen ikasketak” (ia ikasle neskarik gabekoak) egotea eta ikasketa hauek lanpostu eta lan baldintza oso ezberdinen artean izatea.</p> | <p>2. Ekintzak egiteko gakoa norberak garatu dituen gaitasunak dira, ez norberaren sexua. Gaitasun batzuk ia ekintza guztietarako dira baliotsuak. Beste batzuk espezifikagoak dira. Nolako gaitasunak aukeratu dituzte ikasleek? Zein gaitasun garatu eta zein ekintza egiten dituzte jadanik? Neskek zein mutilek berdin? Zeintzuk? Zergatik?</p> | <p>→ Gaizki egitea ikasbidea da. Gaizki eginez eta hobetuz ikasten da. Inor ez da zerbaiterako ikasia jaio.</p> <p>→ Dena ikas daiteke. Maila anitzetan edozein gaitasun garatu daiteke. Modu anitzetan edozein ekintza egiten ikas daiteke.</p> |
| <p>3. Edozeinek ahal du ikasi eta landu, kudeatu eta garatu edozein gaitasun: konstantzia, ordena, garbitasuna, higiena, zaintza, enpatia, kemena, adimena, ausardia, adorea, azkartasuna, asertibitatea, eta abar. Norberaren herentziak eta ezaugarri pertsonalak baldintzatzen dituzte norberaren gaitasunak, ez norberaren sexuak.</p> | <p>3. Gaitasunak garatzeak ekintzak egiteko aukera biderkatzen du, bizitza biderkatzen du. Era guztietako gaitasunak, bizitzaren arlo guztietarakoak, norberaren sexuari eta gizartearen genero estereotipoek kasurik egin gabe. Horrela egin dute ikasleek gaitasunei ekintzak lotzerakoan? Neskek zein mutilek berdin? Zergatik?</p> | <p>→ Berdintasuna ikasi, berdintasunez ikasteko. Ikasteko genero trabak eta mugak identifikatu, baztertu eta gainditu, ikasteko benetako berdintasun aukera izateko.</p> <p>→ Berdintasunez ikasi askatasunez eta aniztasunez ikasteko. Sexu-mugarik gabe ikasi, gaitasun pertsonalak garatu ahal izateko. “Nesken eredu” eta “mutilen eredu” antzeman, aztertu eta gainditu.</p> |

→ Berdintasunaren bitartez zer ikasi aukeratzeko askatasuna sustatu.